



ehbildu

Aukerak baliatuz

Por tu presente

2015-2019 agintaldiko EH BILDUren balantzea

Oposizioan baina Orioren alde lanean

Prentsaurreko honen helburua amaitzear dagoen agintaldi honen errepasso labur bat egitea da.

EAJren pasibotasunaren aurrean EH Bilduko lau zinegotziok saiatu gara beste bi alderdietako hiru zinegotziekin adostasunak lantzen eta, gure ustez, oso emankorra izan da ahalegina.

Gai izan gara proposamenak adosteko 2017, 2018 eta 2019ko udal-aurrekontuei begira, nahiz eta, EAJren moteltasunaren ondorioz, gaiak nahi bezain azkar ez egin. Lan asko egin eta ekimen ugari bultzatu ditugu, gaur egun burututa edo burutzear daudenak: liburutegiaren berrikuntza, Arraunetxeko aretoa eta museoaren egokitzapena, pobreziaren azterketa, Ongizate zerbitzua hobetzeko administrari-lanpostu berria, Arrantzale kaleko bidegorri-lanak berraztertzea...

Dike-Kofradia inguruko Planak aparteko aipamena merezi du. Hasieratik EAJk jarritako oztopo eta trabak ikusita, prozesu ilun eta liskartsu baten bidetik joango ginen. EH Bilduk eta oposizioko beste bi alderdiek Kofradiako eta Dikeko lur-jabeekin egindako elkarlanak egin du posible egoera bideratzea. Laster hasiko dira kofradia eraisteko lanak eta hori berri pozgarria da herriarentzat.

Apaltasunetik, eta aitortuz beti dagoela non eta zertan hobetua, egin dugun lana baliagarria izan dela uste dugu. Oriok eta Euskal Herriak merezi du eta guretzat ohore bat izan da herriarentzat lan egitea.

EAJ noraezean eta antolakuntza-faltan

Errepaso honi jarraipena emateko, ezinbestekoa da udal-gobernuaren gidaritza eraman duen EAJ alderdiak egindako kudeaketa aipatzea.

2011-2015 agintaldi osoan Bilduk gidatutako gobernuari kritika gogorrak egin ondoren, eta 2015-2019 agintaldiari begira hainbat egitasmo proposatu ostean, 13tik 6 zinegotzi lortu zituen EAJk. Beren esanei kasu egitera, bazirudien EAJk ekimen mordoa jarri behar zuela martxan (10, zehazki), Orioren garapenari begira eta oriotarren bizi-kalitatea hobetzeko...

Beren egitasmoak hemen ikus ditzakezue: <http://hauteskundeak2015.eaj-pnv.eus/jose-angel-zaldua#cont-anclas>

Egin dezagun aurkeztu zuten programaren azterketa txiki bat:

“Ekinez egina / Hechos” lelopean aurkeztu zuten beren programa eta ondoko 10 egitasmo hauek aurkeztu zituzten:

- 1. Industria-gune berriaren bitartez Orioko enpresa-sarea sustatzea**
- 2. Instalakuntza, azpiegitura eta udal-zerbitzuen hobekuntzarako planak.**
- 3. Adineko mendeko pertsonentzat egoitza.**
- 4. Eraginkortasunez eta gardentasunez gobernatzea.**
- 5. Etxebizitza lortzeko neurriak hartzea.**
- 6. Udal-gestioan herritarren parte-hartzea sustatzea.**
- 7. Gaikako hondakinen bilketa. 5. edukiontzia bitartez gure kaleen garbiketarako sakontzea.**
- 8. Turismoa indartu, gure komertzioa eta ostalaritza babesteko.**
- 9. Euskara eta kultur ekintzak sustatuko ditugu.**
- 10. Kirol eta gazteriari lotutako ekimenak zabaltzea.**

Beren herri-politikari jarraituz, ustez, oso programa sendoa eta liluragarria aurkeztu zuten; baina, 4 urte pasa ondoren, zer iritzi duzue egitasmo hauei buruz? Bete direla uste duzue?

Orioko etorkizunari begira, zer da EAJko udal-gobernu honek landu duena? Hobekuntzarik izan al da kudeaketari dagokionez? Aurreraka goaz, ala atzeraka?

Barrendik ikusita, kemenik gabeko EAJ bat ezagutu dugu, noraezean eta akordiotarako borondaterik gabekoa. Zoritxarrez, horrek eragin kaltegarriak izan ditu oriotarrentzat.

Adibide batzuk jartzeko: Plan Orokorra, plazako obrak, langileen kontratazioak, pobreziaren azterketa... gai horiek guztiek bi eta hiru urteko atzerapena daramate. Gauza bera esan dezakegu hondakinen bilketa-sistema berriari egin beharreko egokitzapenei buruz eta sistemaren jarraipenari buruz.

Koordinazio- eta antolakuntza-faltaren ondorioz, kaosa bizi izan dugu batzordeen funtzionamenduan. Hainbat batzorde, berriz —merkataritza, ongizatea, kirola, hezkuntza eta euskara, adibidez— kasik desagertuta egon dira. Kanpainan horrenbeste famatu zuten 'kudeaketa ona' ren adibiderik ez dugu ikusi, zoritxarrez.

Egoera honen aurrean errazena, aurreko agintaldian EAJk oposiziotik egin zuen gauza bera egitea izango zen; baina ez dugu horrela jokatu nahi izan.

Bestalde, esan dezakegu orain dela lau urte EAJk kea saldu zuela, jakinda zertan ari zen, gauzatu ezineko proposamenak eginez. Herriari berriro sinestarazi nahi zioten EAJ dela aukera bakarra. Ikusi dugu, ordea, hori ez dela egia eta urrun daudela aukera bakarra izatetik.

Beste taldeok ere baditugu proposamenak. Beharbada, xumeagoak dira, itxura batean, gure egitasmoak; baina, aldi berean, egingarriagoak ere bai. Politikan adostasunak bilatzea da gakoa; eta horretan EAJk berriro huts egin du, nabarmen, agintaldi honetan.

Etorkizuneko erronkak

Orain, agintaldi berriaren eta gure agurraren atarian, bi aipamen egin nahi genituzke:

- Gure erreleboa emateko garaian, konfiantza osoa dugu, datorren agintaldiari begira, EH Bildutik aurkeztu den zerrendarekin eta lantaldearekin. Gaitasun handia daukate eta ez zaie ilusiorik falta. Ziur gaude lan paregabea egingo dutela, herritarrek erabakitzen duten ardura-mailarekin, denon bizi-kalitatea hobetzeko. Gure laguntza eta babesa hor izango dute.
- **Orioren** eta oriotarren etorkizuna bermatzeko, behar-beharrezkoa da Udalari norabide egokia markatu eta bultzada sendoa emango dion gidaritza izatea. Lau urte hauetan erakutsi dutena ikusita, nekez etorriko da hori udal-gobernua izan duen EAJren eskutik.



ehbildu
Orio